

---

## 4.14. ERROTABIRUSA

### GAIXOTASUNAREN EZAUGARRIAK

Gorakoak, sukarra eta diarrea urtsua dakartzan gastroenteritisa da, eta bularreko umei eta haur txikiei erasaten die. Deshidratazio larria eragin dezake. Errotabirusa haurrak diarrearekin ospitaleratzeko arrazoi nagusia da, gure ingurunean; eta garatzeko bidean dauden herrialde askotan heriotza eragiten duen arrazoi garrantzitsuetariko bat.

### AGENTE ERAGILEA

Reoviridae familiako errotabirusa. A taldea ohikoena da gizakien artean, eta, haren barruan, 27 G-tipo eta 37 P-tipo ezagutzen ditugu. Herrialde garatuetan, infekzioen % 90 infekzio baino gehiago genotipo hauek direla-eta izaten dira: G1P[8]; G2P[4]; G3P[8]; G4P[8]; G9P[8] eta G12P[8].

### TRANSMISIO MODUA

Bide ahotiko fekala.

### INKUBAZIO-DENBORA

24 eta 72 ordu bitartekoa.

### IMMUNITATEAREN IRAUPENA

Haur gehienek errotabirusaren aurkako antigorputzak garatzen dituzte 3 urteko adinean.

### TXERTOEN EZAUGARRIAK ETA OSAERA

ANTIGENOA	IZEN KOMERTZIALA	LABORATEGIA
G1, G2, G3, G4 y P[8] errotabirusa	Rotateq	Merck, Sharp & Dohme MSD
RIX4414 errotabirusa (G1P[8] genotipoko anduia)	Rotarix	GlaxoSmithKline GSK SA

### EMATEKO MODUA

Ahotik hartzekoa. Ez da injektatu behar.

## TXERTAKETA-JARRAIBIDEA

TXERTOIA	HASTEKO GUTXIENEO ADINA	HASTEKO GEHIENEO ADINA	DOSIAK	GUTXIENEO TARTEA DOSIEN ARTEAN	JARRAI BIDEA AMAITZEKO ADINA*
ROTARIX	6 aste	20 aste	2	4 aste	24 aste
ROTATEQ	6 aste	12 aste	3	4 aste	32 aste

\*Ahal dela, 20. eta 22. asteen artean.

## NOLA KONTSERBATU

2 eta 8º C bitartean. Ez dira izoztu behar.

## INDIKAZIOAK

Ez da txertaketa unibertsal gomentatzen haurren egutegian.

Jaioberri prematuroentzat gomendatzen da, haurdunaldia  $\leq 32$  astekoa izan baldin bada.

[Ikus 6. Kapitulua.](#)

Jaioberrien unitatean txertoa hartuz gero, birusaren transmisioa prebenitzeko neurriak hartuko dira bi astez

## KONTRAIKAZIOAK ETA KONTUAN HARTZEKOAK

Hipersentikortasuna txertoaren osagaien batekiko edo txertoaren aurreko dosiren batekiko.

Heste-inbaginazioaren aurrekaria.

Traktu gastrointestinalaren sortzetiko malformazioa.

Immunoeskasia konbinatu larria duten pertsonak.

Errotavirusaren txertoa hartzean, txerto horren zati bat berriro ahaztu ekartzen baldin bada edo okatzen baldin bada, ez da berriro emango txertoa, salbu eta txerto guztia edo ia guztia galdu dela ikusten baldin bada. Horrela gertatuz gero, beste dosi bat eman daiteke. Ordezko dosi bakar bat eman daiteke bisita berean. Egoera hori errepikatzen baldin bada berriro, ez da ordezko dosi gehiagorik emango.

## ONDORIO KALTEGARRIAK

- Maiz gertatzen dira: diarrea, suminkortasuna; goiko arnasbideko infekzioa eta pirexia (Rotateq).
- Gutxitan gertatzen dira: sabeleko mina, haize-mina, dermatitisa.
- Oso gutxitan: heste-inbaginazioa.

---

## BIBLIOGRAFIA

1. Centro Nacional de Epidemiología. Instituto de Salud Carlos III. Red Nacional de Vigilancia Epidemiológica. Protocolos de la Red Nacional de Vigilancia Epidemiológica. Madrid, 2013.
2. Diario Oficial de la Unión Europea. Decisión de la Comisión de 28 de abril de 2008 (2008/426/CE).
3. Recomendaciones para la vacunación frente al rotavirus de los recién nacidos prematuros (ROTAPREM). Disponible en:<https://vacunasaep.org/documentos/recomendaciones-para-la-vacunacion-frente-al-rotavirus-de-los-recien-nacidos-prematuros>
4. Prevention of Rotavirus Gastroenteritis Among Infants and Children Recommendations of the ACIP. MMWR, February 6, 2009, Vol 58, #RR-02
5. Rotavirus: the green book, chapter 27b .Update patch to chapter 27b: 28 August 2015. Public Health England. Disponible en:  
<https://www.gov.uk/government/publications/rotavirus-the-green-book-chapter-27b>.
6. The Australian Immunisation Handbook (updated 2019). Part Vaccine-Preventable Diseases. Rotavirus. Australian Government. Department of Health. Disponible en  
<https://immunisationhandbook.health.gov.au/vaccine-preventable-diseases/rotavirus>.
7. Ficha técnica de la vacuna:  
<https://cima.aemps.es/cima/publico/lista.html>